

## LANGILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

### 1. ESKUBIDEAK

- Langileak eskubidea du:
- lanean benetan aritzeko;
- lanbide sustapen eta prestakuntzarako;
- edozein arrazoiengatik (arrazaz, sexu, erlijio, adin eta abarengatik) diskriminatua ez izateko;
- segurtasun fisikorako (lanean segurtasun-neurriak hartzeko);
- intimitatea errespetatzeko;
- itundutako soldataren ordainketa garaiz jasotzeko;
- lan-kontratuaren ondoriozko ekintzak eta eskubideak indibidualki erabiltzeko.

### 2. BETEBEHARRAK

- lanpostuaren berezko betebeharrak betetzea;
- laneko segurtasun eta higiene neurriak betetzea;
- enpresariaren aginduak eta instrukzioak garaiz betetzea;
- enpresarekin ez lehiatzea;
- produktibitatea hobetzen laguntzea;
- lan-kontratuaren ondoriozko betebehar guztiak betetzea.

**ITURRIA:** <http://www.justizia.net>

